## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## FORU ADMINISTRAZIOKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO DEPARTAMENTUA

*Unibertsitateko ikasleek Gipuzkoako Foru Aldundian praktika akademikoak egiteko programaren oinarri arautzaileak.*

Diputatuen Kontseiluak honako akordioa hartu zuen 2013ko irailaren 3an eginiko bilkuran:

Gipuzkoako Foru Aldundia unibertsitateekin lankidetzan aritu ohi da, ikasleek kanpoko praktikak egin ditzaten Aldundiko departamentuetan, beren prestakuntza akademikoa osatu eta hartutako ezagutza aplikatze aldera, jarduera profesionalerako gaitasunen mesederako eta lan merkatuan sartzeko aukeren onerako.

Hala, prestakuntzako lankidetza hori praktiken programa baten bitartez antolatu izan da. Hain zuzen, Diputatuen Kontseiluaren 2010eko abenduaren 21eko Erabakiaren bidez (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 247. zk., 2010eko abenduaren 28koa) onartu ziren unibertsitateetako eta beste zentro batzuetako ikasleek Gipuzkoako Foru Aldundian praktikak egiteko programaren oinarri arautzaileak, egun indarrean daudenak. Orduan, praktikak egiteak eragindako gastuengatik ikasleei diru laguntzak ordaintzea ezabatu zen.

Gaur egun, ordea, beharrezkotzat jo da, alde batetik, aipatu diru laguntzak berreskuratzea; eta, bestetik, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktiken oinarri arautzaile independente batzuk ezartzea, Lanbide Heziketako prestakuntza zikloetako ikasleei dagozkienetatik bereizita.

Oinarri arautzaile berriak, bada, unibertsitateko irakaskuntza ofizialen antolamendu berrira egokitzen dira: Antolamendu horrek aurreikusten baitu ikasleek praktikak egitea graduko ikasketa planen parte gisara. Oinarriok bi kapitulutan banatzen dira.

Lehenengo kapituluak unibertsitateko praktika akademikoen programa berriaren oinarriak dauzka, non zehazten den zer-nolako funtzioak eta erantzukizunak dituzten Gipuzkoako Foru Aldundiko prestakuntza praktiketan parte hartzen duten eragileek. Orobat zehazten da praktikak egiteko prozedura, unibertsitateekin hezkuntza lankidetzarako hitzarmenak sinatzea dakarrena; eta prestakuntza proiektuak aurrera eramateko hitzarmen espezifikoak ikasleekin, praktika akademikoak zehaztu eta gauzatzeko.

Bigarren kapituluak, berriz, ikasketetarako laguntzak emateko eta ordaintzeko oinarriak dauzka, ikasleei praktika akademikoak egiteagatik sortzen zaizkien gastuak konpentsatzekoak. Laguntza horiek emango dira lehia gabeko konkurrentzia prozeduraren bidez.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Diputatuen Kontseiluak, Foru Administrazioko eta Funtzio Publikoko Departamentuko foru diputatuak hala proposatuta, eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo:* Oinarri arautzaile hauek onartzea: Unibertsitateko ikasleek Gipuzkoako Foru Aldundian praktika akademikoak egiteko programarenak. Eranskin gisa jaso dira.

*Bigarren:* Ahalmena ematea Foru Administrazioko eta Funtzio Publikoko Departamentuko foru diputatuari: Unibertsitateekin hezkuntza lankidetzarako hitzarmenak sina ditzan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean eta ordezkaritzan.

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACION FORAL Y FUNCION PUBLICA

*Bases reguladoras del programa de prácticas académicas del alumnado universitario en la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

El Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 3 de setiembre de 2013, adoptó el siguiente acuerdo:

La Diputación Foral de Gipuzkoa colabora habitualmente con las universidades para que su alumnado realice prácticas externas en sus diferentes departamentos, con el fin de complementar su formación académica y aplicar los conocimientos adquiridos, favoreciendo sus competencias para el ejercicio profesional y sus posibilidades de inserción en el mercado laboral.

Esta colaboración formativa se ha venido articulando mediante un programa de prácticas, cuya regulación vigente se estableció por Acuerdo del Consejo de Diputados de 21 de diciembre de 2010 (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 247, de 28 de diciembre de 2010), que aprobó las bases reguladoras del programa de prácticas en la Diputación Foral de Gipuzkoa para el alumnado de universidades y otros centros educativos, suprimiendo el pago de ayudas al alumnado por los gastos ocasionados por la realización de las prácticas.

En la actualidad se ha estimado necesario, por una parte, retomar el abono de las citadas ayudas; y, por otra parte, establecer unas bases reguladoras independientes para las prácticas externas del alumnado universitario, diferenciándolas de las correspondientes al alumnado de ciclos formativos de formación profesional.

Las nuevas bases reguladoras se adaptan a la nueva ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales, que incluye la realización de prácticas por el alumnado como parte integrante de los planes de estudio de grado; y se dividen en dos capítulos.

En el primer capítulo se contienen las bases del nuevo programa de prácticas académicas universitarias; se detallan las funciones y responsabilidades de los agentes que intervienen en las prácticas formativas en la Diputación Foral de Gipuzkoa; y el procedimiento para su realización, con la suscripción de los correspondientes convenios de cooperación educativa con las universidades, y de convenios específicos con el alumnado para llevar a cabo los proyectos formativos que se materializarán en las prácticas académicas concretas.

En el segundo capítulo se contienen las bases para la concesión y abono de las ayudas al estudio, para compensar al alumnado de los gastos ocasionados por la realización de las prácticas. Dichas ayudas se concederán a través del correspondiente procedimiento de concurrencia no competitiva.

Por todo lo anterior, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Administración Foral y Función Pública, previa deliberación,

ACUERDA

*Primero:* Aprobar las bases reguladoras del programa de prácticas académicas del alumnado universitario en la Diputación Foral de Gipuzkoa. Se adjuntan como anexo.

*Segundo:* Facultar a la diputada foral del Departamento de Administración Foral y Función Pública para que suscriba los convenios de cooperación educativa con las universidades, en nombre y representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Hirugarren:* Eraginik gabe uztea, unibertsitate arloari dagokionez, unibertsitateetako eta beste zentro batzuetako ikasleek Gipuzkoako Foru Aldundian praktikak egiteko programaren oinarri arautzaileak, Diputatuen Kontseiluaren 2010eko abenduaren 21eko Erabakiaren bidez onartuak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 247. zk., 2010eko abenduaren 28koa).

*Laugarren:* Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egun berean izango dituzte eraginak oinarri hauek.

Erabaki hau behin betikoa eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Interesatuek erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzien Donostiako epaitegietan, argitaratu, eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu, eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2013ko irailaren 5a.—María Yeregui, Departamentuko idazkari teknikoa. (8415)

*Tercero:* Dejar sin efecto las bases reguladoras del programa de prácticas en la Diputación Foral de Gipuzkoa para el alumnado de universidades y otros centros educativos, aprobadas por Acuerdo del Consejo de Diputados de 21 de diciembre de 2010 (Boletin Oficial de Gipuzkoa n.º 247, de 28 de diciembre de 2010), en lo que se refiere a su ámbito universitario.

*Cuarto:* Estas bases surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 5 de setiembre de 2013.—La secretaria técnica del Departamento, María Yeregui. (8415)

## UNIBERTSITATEKO IKASLEEK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAN PRAKTIKA AKADEMIKOAK EGITEKO PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

### I. KAPITULUA

### UNIBERTSITATEKO IKASLEEN PRAKTIKA AKADEMIKOEN PROGRAMA

*1. Objektua eta xedea.*

Oinarri hauen objektua da unibertsitateko ikasleek Gipuzkoako Foru Aldundian praktikak egiteko programa arautzea, bertan ezartzen denaren arabera.

Programa honen xedea da unibertsitateekin lankidetzan jardutea, ikasleen prestakuntzaren kalitatea hobetzeko, ikasketa planak osatuz ikasketatan jasotako jakintzaren aplikazio praktiko bat eginez herri administrazioaren esparruan, eta prestakuntza bidean ikasleek izan dezaketen garapen profesionalari begira errealitate praktikoaren ezagutza bideratuz.

*2. Ezaugarriak.*

Prestakuntza denez praktika akademiko hauen izaera, bertatik ez da inolaz ere eratorriko lan harreman batek sor ditzakeen betekizunik; eta praktiken edukiak ezin dira aitzaki izan Gipuzkoako Foru Aldundiaren lanpostuen berezko lan prestazioa haien bidez ordezteko.

Era berean, ikasketak amaitutakoan ikaslea Gipuzkoako Foru Aldundiko plantillan sartuko balitz, praktiketan egindako denbora ez da kontuan hartuko antzinatasuna kontatzeko garaian.

*3. Praktiken iraupena eta ordutegia.*

Praktika akademikoen iraupena erabakiko da kasu bakoitzean egin beharreko prestakuntza proiektuaren arabera. Praktikak egiteko ordutegia praktiken ezaugarrien arabera eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren baliabideen eta erabilgarritasunaren arabera ezarriko da.

## BASES REGULADORAS DEL PROGRAMA DE PRÁCTICAS ACADÉMICAS DEL ALUMNADO UNIVERSITARIO EN LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### CAPÍTULO I

### PROGRAMA DE PRÁCTICAS ACADÉMICAS DEL ALUMNADO UNIVERSITARIO

*1. Objeto y finalidad.*

Es objeto de estas bases la regulación del programa de prácticas en la Diputación Foral de Gipuzkoa para el alumnado de las universidades, de conformidad con lo que se establece en ellas.

La finalidad de este programa es la colaboración con las universidades para la mejora en la calidad de la formación del alumnado, completando sus planes de estudios mediante la aplicación práctica de sus conocimientos en el ámbito de la administración pública; y posibilitando, a su vez, el conocimiento de su realidad práctica de cara al posible desarrollo profesional de su formación.

*2. Características.*

Dado el carácter formativo de las prácticas académicas, de su realización no se derivarán, en ningún caso, obligaciones propias de una relación laboral, ni su contenido podrá dar lugar a la sustitución de la prestación laboral propia de puestos de trabajo de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Asimismo, en el caso de que al término de los estudios el alumno o alumna se incorporase a la plantilla de la Diputación Foral de Gipuzkoa el tiempo de las prácticas no se computará a efectos de antigüedad.

*3. Duración y horarios de las prácticas.*

La duración de las prácticas académicas se determinará en función del proyecto formativo que vaya a realizarse. Los horarios de realización de las prácticas se establecerán de acuerdo con sus características y la disponibilidad de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*4. Praktikak egitean parte hartuko duten pertsonak.*

Oinarri hauen ondorioetarako, ulertuko da:

a) Tutorea: Unibertsitateko kide den irakasle edo ikertzailea, Gipuzkoako Foru Aldundian praktika akademikoak egiten dituen ikaslearen jarraipena egiteko eta laguntza emateko ardura duena. Ikasle bakoitzari tutore bat izendatuko zaio.

b) Instruktorea: Gipuzkoako Foru Aldundiko langilea, prestakuntza programaren arabera eta unibertsitatearekin ados jarrita, Aldundiko prestakuntza jarduerak antolatzeko ardura duena. Tutoretza efektiboa egiteko behar den esperientzia profesionala eta ezagutzak izan beharko ditu.

c) Unibertsitateko praktiketako programaren unibertsitateko arduraduna: Kanpoko praktika akademikoen programa antolatzeaz, koordinatzeaz eta kudeatzeaz arduratzen den pertsona.

d) Gipuzkoako Foru Aldundiko praktiketako programaren arduraduna: Aldundiaren solaskidea unibertsitateko praktiketako programaren arduradunarekin jarduteko, Aldundian egiten diren praktika akademikoak koordinatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko eta praktiketan zehar sor litezkeen gorabeherak konpontzeko.

Funtzio Publikoko zerbitzuburua da Gipuzkoako Foru Aldundiko praktiketako programaren arduraduna.

*5. Hezkuntza lankidetzarako hitzarmenak.*

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta unibertsitateek hezkuntza lankidetzarako hitzarmenak sinatuko dituzte Aldundiaren, unibertsitateen eta praktikak egiteko hautatutako ikasleen arteko harremanak arautzeko markoa ezartzeko.

Hitzarmen markoan oinarrituta, egin beharreko prestakuntza proiektu bakoitzeko, hitzarmen espezifiko bat sinatuko da egitekoa den praktikaren alderdi guztiak zehazteko.

Bi hitzarmen horien ereduak I. eta II. eranskinetan jasotzen dira, hurrenez hurren.

*6. Praktikak egiteko prozedura.*

Aurreko puntuan azaldutako hezkuntza lankidetzarako hitzarmena sinatuta duten unibertsitateek beren ikasleek Gipuzkoako Foru Aldundiko lan zentroetan praktikak egiteko eskaera egingo dute; eta eskaerarekin batera aurkeztuko dute kasu bakoitzari dagokion prestakuntza proiektua, hezkuntza helburuak eta egin beharreko jarduerak zehaztuko dituena.

Funtzio Publikoko Zerbitzuaren ardura izango da Aldundian jasotzen diren prestakuntza proiektuen eskaerak tramitatzea eta unibertsitateko praktika akademikoak egiteko behar diren izapideak egitea.

Funtzio Publikoko Zerbitzuak dagokien zerbitzuetara bidaliko ditu jasotako eskaerak, prestakuntza proiektuen esparru materiala kontuan izanda. Praktikak egiteko aukera eta praktiketako ikasleen kopurua xede horretarako erabilgarri dauden baliabide pertsonal eta materialen arabera erabakiko da. Hala ere, jasotzen diren eskaera guztiei erantzuten saiatuko da Aldundia, lehentasuna emanda desgaitasunen bat duten ikasleei.

Antolaketa unitate batek prestakuntza proiektu bat aurrera eramatea onartzen duenean, Funtzio Publikoko Zerbitzuak, praktiketako programaren arduradunaren bitartez, eskaera egin duen unibertsitateko arduradunari jakinaraziko dio, ikasleak hautatu eta tutoreak izenda ditzan.

*4. Personas intervinientes en la realización de las prácticas.*

A los efectos de estas bases, se entenderá:

a) Tutor o tutora: Es el personal docente o investigador, miembro de la universidad, encargado del seguimiento y apoyo al alumnado que realiza las prácticas académicas en la Diputación Foral de Gipuzkoa. Cada alumno o alumna tendrá asignado un tutor o tutora.

b) Instructora o instructor: Es el personal de la Diputación Foral de Gipuzkoa encargado de organizar las actividades formativas en ésta, de acuerdo con el programa formativo y con la universidad. Deberá contar con experiencia profesional y con los conocimientos necesarios para realizar una tutela efectiva.

c) Responsable universitario o universitaria del programa de prácticas de la universidad: Es la persona responsable de la organización, coordinación y gestión del programa de prácticas académicas externas.

d) Responsable del programa de prácticas de la Diputación Foral de Gipuzkoa: Es el interlocutor o interlocutora de ésta con la persona responsable del programa de prácticas de la universidad, para la coordinación, organización y gestión de las prácticas académicas que se desarrollen en su seno, resolviendo los incidentes que se puedan producir en su transcurso.

El jefe o jefa del Servicio de Función Pública es la persona responsable del programa de prácticas en la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*5. Convenios de cooperación educativa.*

La Diputación Foral de Gipuzkoa y las universidades suscribirán convenios de cooperación educativa que establecerán el marco regulador de las relaciones entre ellas y el alumnado seleccionado para realizar las prácticas.

Con base en el convenio marco, por cada proyecto formativo a realizar, se suscribirá un convenio específico en el que se concretarán los diferentes aspectos de la práctica a realizar.

Los dos modelos de convenio se recogen en los anexos I y II, respectivamente.

*6. Procedimiento para realización de las prácticas.*

Las universidades que tengan suscrito el convenio de cooperación educativa al que se refiere la base anterior solicitarán la realización de prácticas de su alumnado en los centros de trabajo de la Diputación Foral de Gipuzkoa, acompañando los proyectos formativos correspondientes, en los que se fijarán los objetivos educativos y las actividades a desarrollar.

El Servicio de Función Pública se encargará de tramitar las solicitudes de proyectos formativos recibidas y de efectuar las gestiones necesarias para la realización de las prácticas académicas universitarias.

El Servicio de Función Pública remitirá a los diferentes servicios las solicitudes recibidas, teniendo en cuenta el ámbito material de los proyectos formativos. La realización de las prácticas así como el número de estudiantes que las puedan efectuar estarán condicionados a la disponibilidad de medios personales y materiales para atenderlas. No obstante, se procurará atender todas las solicitudes recibidas, dando prioridad al alumnado con discapacidad.

Una vez aceptada la realización de un proyecto formativo por una unidad organizativa, el Servicio de Función Pública, a través de la persona responsable del programa de prácticas, lo comunicará a la persona responsable de la universidad solicitante, para que proceda a la selección del alumnado y a la designación del tutor o tutora.

Gipuzkoako Foru Aldundiko praktiketako programaren arduradunak izendatuko du praktiketako instruktorea. Praktiken arduradunek eta hautatutako ikasleak edo ikasleek hitzarmen espezifikoa sinatuko dute, egitera doazen praktikaren funtsezko alderdiak zehazteko. Hautatutako ikasleek dokumentu bat sinatu beharko dute hezkuntza lankidetzarako hitzarmena eta praktikak onartzen dituztela adierazteko (III. eranskinean ematen da dokumentua).

*7. Unibertsitateen betebeharrak eta konpromisoak.*

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, unibertsitateen ardura izango da:

1. Gipuzkoako Foru Aldundian kanpoko praktikak egingo dituzten ikasleak hautatzea; bermatuko dute ikasleak behar adinako hizkuntza ezagutza izango duela praktikak euskaraz egin ahal izateko.

2. Desgaitasunen bat duten ikasleei lehentasuna ematea ikasleak hautatzean eta praktikak esleitzean.

3. Tutore bat izendatzea Foru Aldundian praktika akademikoak egiten ari diren ikasleei jarraipena egiteko eta laguntza emateko.

4. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta hautatutako ikaslearekin prestakuntza proiektua aurrera eramateko behar diren dokumentuak sinatzea.

5. Eskola aseguruak sinatuta edukitzea; eta, behar denean, baita aseguru osagarriak edo antzeko polizak ere.

*8. Gipuzkoako Foru Aldundiaren betebeharrak eta konpromisoak.*

Hitzarmenaren indarraldian Foru Aldundiaren betebeharra izango da:

1. Praktiketako ikasle bakoitzari instruktore bat izendatzea, prestakuntza programaren arabera eta unibertsitatearekin ados jarrita, Aldundiko prestakuntza jarduerak antolatzeaz ardura dadin.

2. Unibertsitatearekin eta hautatutako ikaslearekin prestakuntza proiektua aurrera eramateko behar diren dokumentuak sinatzea.

3. Praktiketako ikasleari dagokion ikasketetarako laguntza ordaintzea, ezarritako zenbatekoan, oinarri hauetako II. kapituluan xedatzen denaren arabera.

4. Ikasleari praktika egiteko behar dituen baliabide materialak eskuratzea.

5. Praktiketako ikasleei laneko segurtasun eta higieneko gaietan aplikatu beharreko legeria betetzen dela zaintzea.

6. Unibertsitateko tutoreari bidali beharreko ikaslearen jarraipeneko bitarteko txostena eta amaierakoa prestatzea.

*9. Praktiketako ikasleen eskubideak eta betebeharrak.*

1. Praktika akademikoak egiten ari diren bitartean, honako eskubideak izango dituzte ikasleek:

a) Instruktore baten tutoretza izatekoa praktikak irauten duen bitartean.

b) Instruktoreak egindako amaierako txostena eskuratzekoa: Txosten horretan espresuki aipatuko dira egindako jarduera, iraupena, eta, kasua denean, errendimendua.

c) Ikasketetarako laguntza gisa ekarpen ekonomiko bat jasotzekoa, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera.

La persona responsable del programa de prácticas en la Diputación Foral de Gipuzkoa designará a la persona instructora de las prácticas. Las personas responsables de prácticas y los alumnos y alumnas seleccionadas suscribirán el convenio específico en el que se concretarán los aspectos fundamentales de la práctica a desarrollar. Las y los estudiantes seleccionados deberán suscribir el documento de aceptación del convenio de cooperación educativa y de la práctica que se incluye como anexo III.

*7. Obligaciones y compromisos de las universidades.*

Durante la vigencia del convenio será responsabilidad de las universidades:

1. Seleccionar al alumnado que vaya a realizar prácticas externas en la Diputación Foral de Gipuzkoa, garantizando que tenga conocimientos suficientes del idioma como para realizar las prácticas académicas en euskera.

2. Otorgar prioridad en la elección y en la adjudicación de prácticas a estudiantes con discapacidad.

3. Designar un tutor o tutora que se encargará del seguimiento y apoyo al alumnado que realiza las prácticas académicas en la Diputación Foral.

4. Suscribir con la Diputación Foral de Gipuzkoa y con la o el estudiante que haya sido seleccionado, los documentos necesarios para el desarrollo del proyecto formativo correspondiente.

5. Tener suscritos los correspondientes seguros escolares y, en su caso, seguros complementarios o pólizas similares.

*8. Obligaciones y compromisos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

Durante la vigencia del convenio será obligación de la Diputación Foral:

1. Designar un instructor o instructora por cada alumno o alumna en prácticas, que será responsable de organizar las actividades formativas en ésta, de acuerdo con el programa formativo y con la universidad.

2. Suscribir con la universidad y con el o la estudiante que haya sido seleccionada, los documentos necesarios para el desarrollo del proyecto formativo correspondiente.

3. Abonar al alumnado en prácticas la bolsa o ayuda al estudio correspondiente, en la cuantía que se establezca, de conformidad con lo dispuesto en el capítulo II de estas bases.

4. Poner a disposición del alumnado los medios materiales indispensables para la realización de la práctica.

5. Velar por el cumplimiento de la legislación aplicable al alumnado en prácticas en materia de seguridad e higiene en el trabajo.

6. Elaborar los informes de seguimiento intermedio y final a remitir al tutor o tutora de la universidad.

*9. Derechos y deberes del alumnado en prácticas.*

1. Durante la realización de las prácticas académicas el alumnado tendrá los siguientes derechos:

a) A la tutela durante la duración de las prácticas por la persona instructora.

b) A la obtención de un informe final elaborado por la instructora, con mención expresa de la actividad desarrollada, su duración y, en su caso, del rendimiento.

c) A percibir una aportación económica en concepto de bolsa o ayuda al estudio en los términos previstos en las presentes bases.

d) Gipuzkoako Foru Aldundiak emanda, laneko segurtasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko araudiaren gaineko informazioa jasotzekoa.

e) Desgaitasuna duten ikasleek, praktikak bateragarri egitekoa, desgaitasunarekin lotutako edo zerikusia duten jarduerekin edo egoera pertsonalekin.

f) Indarrean dagoen araudian aurreikusitako gainerako eskubideak.

2. Era berean, eta praktika akademikoak egiten ari diren bitartean, honako betebeharrak izango dituzte ikasleek:

a) Hezkuntza lankidetzarako hitzarmeneko, hitzarmen espezifikoko eta praktiketako prestakuntza proiektuko terminoak ezagutzea nahiz betetzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak esleitutako instruktorearen jarraibideen arabera; eta hitzarmenaren zein praktikaren onarpen dokumentua izenpetzea, III. eranskinean ageri den ereduaren arabera, baita hura formalizatzeko behar diren gainerako agiriak ere.

b) Gipuzkoako Foru Aldundian praktiketan hastea adostutako datan; eta prestakuntza proiektuan aurreikusitako ordutegia betetzea.

c) Prestakuntza proiektua aurrera eramatea eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin adostutako jarduerak zintzo betetzea, proiektuan ezarritako ildoei jarraiki.

d) Konfidentzialtasuna gordetzea Foru Aldundiaren barneko informazioari buruz; eta sekretu profesionala gordetzea egiten dituen jarduerei dagokienez, praktika garaian eta amaitu ondoren.

e) Gipuzkoako Foru Aldundiaren politikarenganako errespetua erakustea; eta ikasle diren unibertsitatearen izen ona zaintzea.

f) Indarrean dagoen araudian aurreikusitako bestelako betebehar oro.

3. Aurreko apartatuan aurreikusitako betebeharrak bete ezean, praktika bertan behera utzi ahal izango da eta garaiz aurretik amaitu. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakitera emango dio unibertsitateari, eta bi alderdiek sinatutako hezkuntza lankidetzarako hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera ebatziko da praktika garaiz aurretik eten behar den.

4. Ikasleak praktiketara joateari utzi ahal izango dio azterketak egiteko, instruktorearen aurrean justifikatuta hiru egun lehenago. Bestelako absentziak, arrazoi akademikoengatik nahiz bestelakoengatik sortuak, lehenbailehen ezagutarazi behar zaizkie instruktoreari eta tutoreari, eta baimenduta izan beharko dira.

*10. Unibertsitateko tutorearen eskubideak eta betebeharrak.*

Unibertsitateak izendatzen duen tutoreak eskubidea izango du praktikak erregulatzen dituzten arauen berri izateko; eta informazioa jasotzeko, baita ere, prestakuntza proiektuaz eta bere babeseko ikaslearen egonaldiak izango dituen baldintzez.

Era berean, betebehar hauek izango ditu:

a) Praktiken jarraipen efektiboa egitea, Foru Aldundiko instruktorearekin koordinatuta.

b) Prestakuntza proiektuan egiten diren aldaketak baimentzea.

c) Konfidentzialtasuna gordetzea: Tutore lanetan ezagutu lezakeen Foru Aldundiaren barneko informazioari buruz.

d) A recibir, por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa, información de la normativa de seguridad y prevención de riesgos laborales.

e) A conciliar, en el caso de alumnado con discapacidad, la realización de las prácticas con aquellas actividades y situaciones personales derivadas o conectadas con la situación de discapacidad.

f) Aquellos otros derechos previstos en la normativa vigente.

2. Asimismo y durante la realización de las prácticas académicas las y los estudiantes deberán atender al cumplimiento de los siguientes deberes:

a) Conocer y cumplir los términos del convenio de cooperación educativa, del convenio específico y del proyecto formativo de las prácticas, siguiendo las indicaciones del instructor o instructora; y suscribir el documento de aceptación del convenio y de la práctica, según modelo que se recoge como anexo III, así como el resto de documentos necesarios para su formalización.

b) Incorporarse a la Diputación Foral de Gipuzkoa en la fecha acordada y cumplir el horario previsto en el proyecto formativo.

c) Desarrollar el proyecto formativo y cumplir con diligencia las actividades acordadas con la Diputación Foral de Gipuzkoa, conforme a las líneas establecidas en él.

d) Guardar confidencialidad en relación con la información interna de la Diputación Foral y guardar secreto profesional sobre sus actividades, durante su estancia y finalizada ésta.

e) Mostrar una actitud respetuosa hacia la política de la Diputación Foral de Gipuzkoa, salvaguardando el buen nombre de la universidad a la que pertenece.

f) Cualquier otro deber previsto en la normativa vigente.

3. En caso de incumplimiento de los deberes previstos en el apartado anterior, la práctica podrá rescindirse anticipadamente. A tal efecto la Diputación Foral de Gipuzkoa lo pondrá en conocimiento de la universidad, debiendo resolverse en los términos previstos en el convenio de cooperación educativa suscrito entre las partes.

4. El alumno o alumna podrá ausentarse de la práctica para la realización de exámenes, justificándolo con una antelación de tres días ante el instructor o instructora. Las restantes ausencias motivadas por razones académicas o de otra índole deberán ser puestas en conocimiento de su instructor o instructora, y de su tutora o tutor, debiendo ser autorizadas.

*10. Derechos y deberes del tutor o tutora de la universidad.*

La tutora o tutor designado por la universidad tendrá derecho a ser informado de la normativa que regula las prácticas, así como del proyecto formativo y las condiciones bajo las que se desarrollará la estancia del alumnado a tutelar.

Asimismo tendrá estos deberes:

a) Hacer un seguimiento efectivo de las prácticas, coordinándose con la persona instructora de la Diputación Foral.

b) Autorizar las modificaciones que se produzcan en el proyecto formativo.

c) Guardar confidencialidad en relación con la información interna de la Diputación Foral que conozca como consecuencia de su actividad como tutor o tutora.

*11. Gipuzkoako Foru Aldundiko instruktorearen eskubideak eta betebeharrak.*

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatzen duen instruktoreak eskubidea izango du informazioa jasotzeko praktikak erregulatzen dituen araudiaz, prestakuntza proiektuaz eta hura garatzeko baldintzez.

2. Era berean, betebehar hauek izango ditu:

a) Ikasleei harrera egitea eta egin beharreko jarduera antolatzea, prestakuntza proiektuan ezarritakoaren arabera.

b) Jarduerak gainbegiratzea, praktikaren bilakaera orientatzea eta kontrolatzea.

c) Ikasleei Gipuzkoako Foru Aldundiaren antolamendua eta funtzionamendua azaltzea; eta intereseko araudiaren berri ematea, bereziki lan segurtasun eta arriskuen esparruan.

d) Unibertsitateko tutore akademikoarekin koordinatzea hezkuntza lankidetzarako hitzarmenean ezarritako jardueren bilakaera; barne hartzen ditu: Praktika normaltasunez burutzeko prestakuntza proiektuan egin beharreko aldaketak; eta gerta litezkeen gorabeheren komunikazioa eta konponbidea.

e) 12. oinarrian aipatutako bitarteko txostena eta amaierakoa egitea.

f) Ikasleari praktikak egiteko behar duen prestakuntza osagarria ematea.

g) Konfidentzialtasuna gordetzea instruktore gisa ikasleei buruz ezagutu duen edozein informaziori dagokionez.

h) Gipuzkoako Foru Aldundian diharduten bitartean laguntza eta arreta ematea ikasleei, Aldundian egiten dituzten jardueretan sortzen zaizkien arazo profesionalei irtenbidea aurkitzeko.

*12. Instruktorearen bitarteko txostena eta amaierakoa.*

Instruktoreak amaierako txosten bat egingo du praktikak bukatzen direnean, eta unibertsitateko tutoreari eta ikasleari bidaliko die. Amaierako txosten horretan, ikasleak egindako orduen kopuruaz gain, prestakuntza proiektuan aurreikusitako gaitasun generiko eta espezifikoei dagozkien alderdiak baloratuko dira, VI. eranskinean ematen den ereduaren arabera.

Hitzarmen espezifikoan hala ezartzen denean, praktiken iraunaldiaren erdia igarotakoan, jarraipeneko bitarteko txostena egin ahal izango da, unibertsitateak eskatuta.

*13. Datu pertsonalak.*

Praktiketako programa kudeatzeko jasotzen diren datu pertsonalak arau hauetan ezarritakoa betez tratatuko dira: 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa; 2007ko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamendua onartzen duena; eta 2004ko otsailaren 25eko 2/2004 Legea, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

## II. KAPITULUA

## IKASKETETARAKO LAGUNTZA

*14. Objektua eta onuradunak.*

Gipuzkoako Foru Aldundiak 300 euroko ikasketetarako laguntza bat ordainduko dio hilero ikasle bakoitzari, praktika

*11. Derechos y deberes del instructor o instructora de la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

1. La persona instructora designada por la Diputación Foral de Gipuzkoa tendrá derecho a ser informada de la normativa que regula las prácticas así como del proyecto formativo y de las condiciones de su desarrollo.

2. Asimismo tendrá los siguientes deberes:

a) Acoger al alumnado y organizar la actividad a desarrollar con arreglo a lo establecido en el proyecto formativo.

b) Supervisar las actividades, orientar y controlar el desarrollo de la práctica.

c) Informar al alumnado de la organización y funcionamiento de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de la normativa de interés, especialmente la relativa a la seguridad y riesgos laborales.

d) Coordinar con la tutora o tutor académico de la universidad el desarrollo de las actividades establecidas en el convenio de cooperación educativa, incluyendo aquellas modificaciones del proyecto formativo que puedan ser necesarias para el normal desarrollo de la práctica, así como la comunicación y resolución de posibles incidencias que puedan surgir.

e) Emitir los informes intermedio y final a los que se refiere la base 12.ª.

f) Proporcionar la formación complementaria que precise el o la estudiante para la realización de las prácticas.

g) Guardar confidencialidad con cualquier información que conozca del alumnado como consecuencia de su actividad como instructor o instructora.

h) Prestar ayuda y asistencia al alumnado durante su estancia en la Diputación Foral de Gipuzkoa para la resolución de aquellas cuestiones de carácter profesional que pueda necesitar en el desempeño de las actividades que realiza.

*12. Informe intermedio y final de la persona instructora.*

El instructor o instructora realizará y remitirá al tutor o tutora de la universidad y a la alumna o alumno un informe final a la conclusión de las prácticas. En dicho informe, además del número de horas realizadas por el alumno o alumna, se valorarán diferentes aspectos de las competencias genéricas y específicas previstas en el proyecto formativo, según modelo que se incorpora como anexo VI.

Cuando así se establezca en el convenio específico, una vez transcurrida la mitad del periodo de duración de las prácticas, podrá elaborarse un informe intermedio de seguimiento a petición de la universidad.

*13. Datos de carácter personal.*

Los datos de carácter personal que sean recabados para la gestión del programa de prácticas se regirán por lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, en el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de ésta y en la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

## CAPÍTULO II

## BOLSA O AYUDA AL ESTUDIO

*14. Objeto y personas beneficiarias.*

La Diputación Foral de Gipuzkoa abonará a cada alumno o alumna una bolsa o ayuda al estudio mensual de 300€ para com-

akademikoak egiteagatik sortzen zaizkien gastuak konpentsatzeko. Laguntza hau hilean 350 eurokoa izango da, ikasleak %33ko desgaitasuna edo gehiagokoa duen kasuan.

Laguntza hori ez da inolako ordainsaria edo soldata; eta ordainketa egiten duenean aplikatzekoak diren obligazio fiskalak eta Gizarte Segurantzari buruzkoak beteko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Ikasketetarako laguntzen onuradun izan daitezke praktika akademikoak Gipuzkoako Foru Aldundiko lan zentroetan egiten dituzten unibertsitateko ikasleak.

*15. Baliabide ekonomikoak.*

Ikasketetarako laguntzetarako jarritako baliabide ekonomikoak Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorretan gai horretarako ezarritako aurrekontu kreditutik aterako dira. Aurrekontu ekitaldi baten barruan ikasketetarako emango diren laguntzen bolumen osoa ez da handiagoa izango kontsignazio hori baino; edo kontsignazio horren eguneratzea baino, aurrekontu aldaketak onartzen badira.

*16. Laguntza emateko eta ordaintzeko prozedura.*

Ikasketetarako laguntzak emateko prozedura lehia gabeko konkurrentzia da; eta Gipuzkoako Foru Aldundian praktika akademikoak formalizatzean, praktikak hasi aurretik, eskaera egiten duten unibertsitateko ikasle guztientzat izango da.

Ikasketetarako laguntzaren zenbatekoa hilero ordainduko da praktikak egiten diren bitartean, ikasleei aurreko hilean sortutako gastuak konpentsatzeko. Ordainketa egingo da aurrez instruktoreak egiaztatuta behar diren jarduerak egin direla, prestakuntza proiektuaren arabera egin ere. Kasua denean, dena delako hilabetean praktiketan egindako egunen arabera hainbanatuko da.

Ikasketetarako laguntzen eskaerak horretarako ezarritako ereduetan formalizatuko dira –IV. eta V. eranskinetan–, praktika akademikoa formalizatzeko unean aurkeztu beharreko gainerako dokumentazioarekin batera.

Ikasleek berariazko eta ardurapeko adierazpen hau jaso beharko dute eskaeran: Ez daudela sartuta diru laguntzen onuradun izateko debeku arrazoietan, zeintzuk aipatzen baititu 12. artikuluan 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak.

Orobat erantsi beharko dituzte beren zerga betebeharrak betetzean eta Gizarte Segurantzaren aurrean egunean daudelako ziurtagiriak. Aukera izango dute berariazko baimena emateko kudeaketa organoari zuzenean eskuratu ditzan Gipuzkoako Foru Aldundiak onuradunari buruz dituen zerga datuak.

Onuradun bakoitzari ematekoa den zenbatekoa 3.000 euro baino gutxiago denean, V. eranskinak daukan ardurapeko adierazpena egin daiteke ziurtagirien ordez: Hots, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagirien ordez; hala ezartzen baitu 11. artikuluko 3. zenbakian Gipuzkoako Lurralde Historikoko Diru Laguntzen Foru Arauaren Erregelamenduak, 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartuak.

Desgaitasuna % 33 edo handiagoa duten ikasleek organo eskudunak emandako desgaitasun aitortuaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Funtzio Publikoko Zerbitzuak izapidetuko ditu eskaera horiek.

pensarle de los gastos ocasionados por la realización de las prácticas académicas. Esta ayuda será de 350€ mensuales en el caso del alumnado con una discapacidad igual o superior al 33%.

Esta ayuda no supone remuneración o salario alguno y en su abono la Diputación Foral de Gipuzkoa cumplirá con las obligaciones fiscales y en materia de Seguridad Social que resulten aplicables.

Podrá beneficiarse de las ayudas al estudio el alumnado universitario que realice sus prácticas académicas en los centros de trabajo de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*15. Recursos económicos.*

Los recursos económicos destinados a estas ayudas al estudio procederán del correspondiente crédito presupuestario establecido en los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. El volumen total de las ayudas al estudio a conceder dentro de un ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias.

*16. Procedimiento de concesión y abono.*

El procedimiento de concesión de las ayudas al estudio es el de concurrencia no competitiva y alcanzará a todo el alumnado universitario que efectúe la correspondiente solicitud al formalizar las prácticas académicas en la Diputación Foral de Gipuzkoa, previamente a su inicio.

El importe de la ayuda al estudio se abonará mensualmente durante el período en el que se realicen las prácticas, para compensar al alumnado de los gastos ocasionados en el mes anterior. Se efectuará previa justificación por la persona instructora de la realización de la actividad conforme al proyecto formativo. En su caso, se prorrateará en función de los días de prácticas realizados en el mes de que se trate.

Las solicitudes de concesión de las ayudas al estudio se formalizarán en los modelos establecidos al efecto –se adjuntan como anexos IV y V–, junto con el resto de la documentación exigida en el momento de formalizar la práctica académica.

Los alumnos y alumnas deberán recoger en la solicitud la declaración expresa y responsable de no estar incursos en las causas de prohibición para obtener la condición de persona beneficiaria de las ayudas, que se señalan en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Asimismo, deberán adjuntar los certificados de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. Podrán autorizar expresamente al órgano gestor para que pueda acceder directamente a sus datos tributarios obrantes en la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Cuando la cuantía a otorgar a cada persona beneficiaria no supere el importe de 3.000 euros, la declaración responsable contenida en el anexo V sustituirá a la presentación de las certificaciones de acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, de conformidad con lo establecido en el artículo 11.3 del Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

El alumnado con discapacidad del 33 % o superior deberá aportar el correspondiente certificado de discapacidad reconocida emitido por el órgano competente.

El Servicio de Función Pública se encargará de la gestión de las solicitudes.

*17. Laguntza emateko ebazpena.*

Foru Administrazioko eta Funtzio Publikoko Departamentuko foru diputatua izango da ikasketetarako laguntzak emateko eta ordainketak egiteko organo eskuduna.

Laguntza ematea eta ordaintzea onartzen duen hileko ebazpena indibidualki jakinaraziko zaie interesdunei, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 59. artikuluan aurreikusitako moduan.

Laguntzak emateko prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko ezartzen den gehieneko epea bi hilabetekoa da, laguntza eskaerak aurkezten direnetik kontatzen hasita.

Aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko epea igarotzen bada ebazpena jakinarazi gabe, interesdunek ulertu ahal izango dute eskaera ezetsi egin zaiela, administrazioaren isiltasunagatik.

Hiru hilean behin argitaratuko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko (https://www.gfaegoitza.net) iragarki taulan ikasketetarako laguntza hauen onuradunen zerrenda; laguntza horren zenbatekoa 3.000 euro baino gehiago bada, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira.

*18. Laguntzen bateragarritasuna.*

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein administrazio publikok xede berarekin ezarritako beste edozein laguntzarekin, baldin eta diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada. Hala ere, horrek ez du baldintzatzen beste diru laguntzen araudiek xedatu dezaketena.

Diruz lagundutako jarduera beste diru laguntza batzuekin finantzatu denean, horien zenbatekoa eta jatorria justifikatu beharko dira.

*19. Akatsen zuzenketa eta dokumentazio osagarria.*

Eskaeran edo eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan identifikazio datuak falta badira, akatsen bat badute edo osatu gabe badaude, praktiketako ikasleari errekerimendua egingo zaio: Antzemandako akatsak zuzen ditzan hamar eguneko epean; adieraziz, horrela egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela.

*20. Ez-betetzeak.*

Gipuzkoako Foru Aldundian praktika akademikoak egiten ari den unibertsitateko ikasleak ez baditu betetzen oinarri hauetan jasotako betebeharrak, laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea galduko du.

Praktikak irauten duten bitartean ikaslea agertzen ez bada, justifikaziorik gabe, ikasketetarako laguntza gisa ematen zaion hileko zenbatekotik dagokion proportzioan kenduko zaio; eta hori 9.3 oinarrian aurreikusitako garaiz aurreko praktika amaitzea eragotzi gabe.

Praktika bertan behera uzten baldin bada arau hausteengatik, ikasleak jasotako zenbateko guztiak itzuli beharko ditu, gehi haien gaineko berandutza interesak.

*21. Ikasleen betebeharrak eta konpromisoak.*

Ikasleek ikasketetarako laguntza onartzeak esan nahi du bete egin beharko dituztela izaera orokorrez oinarri hauetan ezarritako betebeharrak eta, halaber, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa; eta arau hori garatzen duen 2008ko apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bitartez onartutako erregelamenduak ezarritakoak.

*17. Resolución de concesión.*

La diputada o diputado foral del Departamento de Administración Foral y Función Pública será el órgano competente para resolver la concesión de las ayudas al estudio y efectuar su abono.

